AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
*ERMUA HIRIKO UDALA*

**Convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de la Villa de Ermua y la Asociación Kaltxango Musical**

***Kaltxango Musika Elkartearen eta Ermuko Udalaren arteko lankidetza hitzarmena***



## *SARRERA*

*Ermuko Udalak herritarrentzako kultur eskaintza areagotzeko ahaleginean, Kaltxango Musika Elkartearekin akordioa egin zuen udalerrian Musika Eskola sortzeko. Akordio hura elkarren arteko lankidetza-hitzarmen baten jaso zen, 1995eko otsailaren 2an.*

*Akordio hura hainbat aldiz eguneratu da, azkenengoz 2005ean, Musika Eskolari musika suspertzeko eta irakasteko Goienkale 2 eraikina laga zitzaionean, Musika Eskola zerbitzuaren etengabeko hazkundeagatik leku gehiago eta gehiago behar zuelako.*

*Horregatik, hitzarmen horren indarrez, Musika Eskola kudeatzen duen Kaltxango Musika Elkartearekin ondorengo laguntza-motak mantentzeko konpromisoa hartzen du Ermuko Udalak:*

- *Batetik, irakaskuntzarako behar diren azpiegituren lagapena, Goienkale 2 eraikina erabiltzeko lagapenean gauzatzen dena.*
- *Bestetik, Kaltxango Musika Elkarteari urtean diru-laguntza finko bat ematea, finantza-oreka mantentzen laguntzeko, eta aldi berean Musika Eskolak ematen duen zerbitzuaren egonkortasuna ziurtatzeko.*
- *Azkenik, Musika Eskolan matrikulatzen den ikasle kopuruaren arabera diru-*

## PREÁMBULO

El Ayuntamiento de Ermua, en su afán de incrementar la oferta cultural dirigida a la ciudadanía, alcanzó en su día un acuerdo con la Asociación Kaltxango Musical para la creación de la Escuela de Música en el municipio, acuerdo que se plasmó en un Convenio de Colaboración entre ambas entidades de fecha 1 de febrero de 1995.

Dicho acuerdo se ha actualizado en distintas ocasiones, produciéndose la última el año 2005, con ocasión de la cesión del edificio Goinkale 2, destinado a los fines de promoción y docencia musical, y cuya cesión respondió a las necesidades de espacio por el incesante crecimiento del servicio de Escuela de Música.

Por tanto, a través de dicho Convenio, el Ayuntamiento de Ermua se compromete con la Asociación Kaltxango Musical, en su condición de gestora de la Escuela de Música, a mantener dos líneas de ayuda, que son:

- Por una parte, mantener la cesión de las infraestructuras adecuadas para la práctica docente, que se concreta en la cesión de uso del edificio Goinkale 2;
- Por otra, conceder una subvención fija anual que permita a la Asociación Kaltxango Musical el equilibrio financiero que a su vez, redunde en la estabilidad del servicio de Escuela de Música.
- Por otra, conceder una subvención variable en función del alumnado matriculado en la

*laguntza aldakor bat ematea, beste finantzaketa-iturriekin batera (matrikulazioaren diru-sarrerak eta Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza) zerbitzuaren finantziazioa osatzeko.*

*Bere aldetik, Kaltxango Musika Elkarteak ondorengo konpromisoak hartzen ditu:*

- *Goinkale 2 eraikinaren kudeaketa osoa egitea;*
- *Udalerrian musikaren irakaskuntza-jarduera mantentzea:*
- *Kultura sustatzea eta zabaltzea Ermuko Udalarekin elkarlanean.*

*Horrekin guztiarekin bat etorriz, alde biek behar besteko ahalmena aitortzen diote elkarri honako hitzarmena sinatzeko, eta jarraian idatzitako testua adostu eta onartu dute ondorengo*

***KLAUSULETAN oinarriturik,***

***Lehenengo**. Ermuko Udalari herrian musikaren jarduera bultzatzea interesatzen zaio, eta musikaren jarduera hori gauzatzeko eta alor horretan trebatzeko beharrezko diren baliabideak herritarrei eskaintzea ere bai, udal eremuan antzerako helburuak dituzten erakundeekin bat eginez.*

***Bigarren**. Kaltxango Musika Elkartea sortzen da ondoko helburuekin: ermuarren artean musikaren trebakuntza sustatzeko eta udalerrian dauden bestelako entitateek musikan dituzten asmoak koordinatzeko. Horretarako, Ermuko Musika Eskola sortu, abiarazi eta kudeatzen du, helburu komun horien elementu biltzailea baita.*

Escuela de Música, que complemente la financiación del servicio respecto a las otras fuentes de financiación: los ingresos derivados de la matrícula y la subvención obtenida del Gobierno Vasco.

Por su parte, la Asociación Kaltxango Musical se compromete a:

- La gestión integral del edificio Goinkale 2;
- El mantenimiento de la actividad musical docente en el municipio;
- La colaboración con el Ayuntamiento de Ermua en la promoción y difusión cultural.

En consecuencia de lo anterior, ambas partes, reconociéndose capacidad suficiente para suscribir el presente convenio, pactan y aceptan el presente texto, de acuerdo a las siguientes

**CLÁUSULAS**

**Primera**. Al Ayuntamiento de Ermua interesa el impulso de la actividad musical en el municipio, facilitando a la ciudadanía la formación y los medios suficientes para hacerla efectiva, coadyuvando para ello con las entidades de ámbito municipal que compartan objetivos similares.

**Segunda**. La Asociación Kaltxango Musical se funda con el objeto de promover la formación musical a los/as ciudadanos/as de Ermua, así como coordinar las inquietudes musicales de otras entidades del municipio. Para ello, pone en marcha y gestiona la Escuela de Música de Ermua, como elemento integrador de dichos

objetivos.

***Hirugarren**. Ondorio eta helburu hori lortze aldera, Ermuko Udalak eta Kaltxango Musika Elkarteak Goienkale 2ko eraikina erabiltzeko baimena adostu dute, horren bitartez aipatutako Musika Eskola horren jarduera ahalbidetzen baita. Musika eskola hori Eusko Jaurlaritzak homologatua du, eta eskolak behar dituen honakoaren I Eranskineko ondasun-zerrendan eta inbentarioan bildutako egitura- altzari- eta kudeaketa-elementuekin.*

**Tercera**. A tal efecto y con dicha finalidad, el Ayuntamiento de Ermua conviene con la Asociación Kaltxango Musical el otorgamiento de la cesión del edificio ubicado en Goienkale 2, que posibilite el funcionamiento de la citada Escuela de Música, homologada por el Gobierno Vasco, con dotación de elementos estructurales, de mobiliario y de gestión, necesarios a tal fin, según relación de bienes e inventario adjunto mediante Anexo 1.

***Laugarren**. Nolanahi ere, Udalak eraikinaren titularitatea izaten jarraituko du eta honen baimenik gabe Kaltxango Elkarteak ezin izango du bertan inolako aldaketarik egin, ez egituran, ez kudeaketa-erregimenean ez eta funtzioan.*

**Cuarta**. Esto no obstante, la titularidad del edificio permanecerá siendo del Ayuntamiento, sin cuya autorización la Asociación no podrá efectuar ningún cambio en la misma, ni estructural, ni de régimen de gestión ni de función.

*Hitzarmen hau indarrean dagoen denboran Ermuko Udalak eskubidea gordeko du, osorik edo zatika, eraikinari zein erabilera emango zaion, erabakitzeko. Kasurako, hauteskundeen deialdi prozesuetan beharrezkoak diren hauteskunde-kolegioak jartzeko.*

El Ayuntamiento se reserva el derecho de uso del edificio, total o parcialmente, durante el tiempo de vigencia de este Convenio, para la instalación en el mismo de los Colegios Electorales que resulten necesarios con ocasión de la celebración de convocatorias de procesos electorales.

***Bosgarren.** 'Musika Eskola' eraikina kudeatzen duen Kaltxango Musika Elkarteak, bestalde, konpromisoa hartzen du astean zehar eskolarentzat soilik izango ez diren eta entseguetarako erabiliko diren ordutegi batzuk ezartzeko. Entsegu ordutegi horiek eskolaren jarduera nagusiarekin bateragarriak izango dira eta, eraikina zabaltzen eta ixten den ohiko ordutegian txertatuko dira.*

**Quinta.** Así mismo, la Asociación Kaltxango Musical, como entidad gestora del edificio "Escuela de Música", se compromete a establecer unos horarios semanales de uso de aulas de ensayo que no será exclusivo de la propia Escuela. Dichos horarios serán compatibles con la actividad principal del recinto, que es la propia de la Escuela de Música, y quedarán comprendidos dentro del horario habitual de apertura y cierre del mismo.

***Seigarren**. Eraikinaren beste erabilera batzuk Musika Eskolaren erabilerarekin bateratzeko, azken horren jarduera arriskuan ipini gabe, hitzarmen honen bitartez*

**Sexta**. A los efectos de compatibilizar otros usos del edificio con la Escuela de Música, sin poner en riesgo su actividad, a través de este convenio se establecen las

*baldintzak ezartzen dira hirugarrengoek Kaltxango Musika Elkarteak kudeatzen dituen instalazioak erabil ditzaten. Horretarako 'Musika Eskola' eraikinaren erabiltzailearen figura sortzen da, zerbitzuaren ikaslearen figuratik argi eta erabat bereizten dena.*

*Erabiltzaile izaerak ondoko eskubidea soilik izango du: Kaltxango Musika Elkarteak zehaztutako instalazioak erabiltzea eta entseguak egiteko bakar-bakarrik.*

*Zerbitzuaren erabiltzaile izaera lortzeko ondoren zerrendatzen diren baldintzak bete beharko dira:*

- *Formalki eratuta dagoen kolektibo edo taldea izatea.*
- *Ermuko herritarrez osaturik egotea.*
- *Musikaren jardueran aritzea.*
- *Ermuko Udalarengandik erabilera baimena lortu eta kreditatzea.*
- *Musika Eskolako erabiltzaile eta ikasleentzat ezarritako barne-araudia onartu eta errespetatzea.*
- *Zerbitzuaren sostenguan proportzionaltasunez eta modu orekatuan parte hartzea, instalazioen erabileraren ondoriozko gastuak ordaintzen lagunduz.*

*Erabiltzaile izaeratik kanpo geratzen dira beren-beregi, instalakuntza ondoren zerrendatzen diren baldintzetan erabiltzea eskatzen duten kolektiboak:*

- *Instalakuntza gehienez ere 10 ordu astean behar dutenak. Horrelakoetan,*

condiciones para que terceros puedan hacer uso del as instalaciones regentadas por la Asociación Kaltxango Musical, mediante la creación de la figura de usuario/a del edificio "Escuela de Música", claramente diferenciada de la de alumno/a del servicio.

La condición de usuario/a solo otorgará derecho de uso de las instalaciones que determine la Asociación Kaltxango Musical, y exclusivamente para la realización de ensayos.

Para poder acceder a la condición de usuario de dicho servicio, se deberán cumplir con las siguientes condiciones:

- Que sea un grupo o colectivo formalmente constituido.
- Que esté integrado por ciudadanos/as del municipio.
- Que se dedique a la actividad musical.
- Que obtenga y acredite la autorización de uso del Ayuntamiento de Ermua.
- Que asuma y respete las normas de régimen interior establecidas para el conjunto de personas usuarias y alumnas de la Escuela de Música.
- Que participe, de manera proporcional y equilibrada, al sostenimiento del servicio, asumiendo la contribución a cubrir los gastos derivados del uso del las instalaciones.

Quedan expresamente excluidos de la condición de usuarios, aquellos colectivos que soliciten el uso de la instalación en las siguientes condiciones:

- Que necesiten la instalación para un periodo máximo semanal de 10 horas,

*instalazio propioa behar dutela joko da.*

- *Entseguak egiteko barik, bestelako jarduera baterako eskatzen dutenak.*
- *Musika Eskolak berak jada eskaintzen dituen zerbitzu edo jarduerak gauzatzeko eskatzen dutenak.*
- *Instalazioa ireki eta ixteko ordutegitik kanpo erabiltzea eskatzen dutenak.*

*Ermuko Udalari dagokio erabiltzailearen izaera ematea, beti ere Kaltxango Musika Elkarteari galdetu ondoren.*

*Kaltxango Musika Elkarteari dagokio libre dauden instalazioak eta erabil daitezkeen ordutegiak zehaztea.*

***Zazpigarren.*** *Lagapen honen indarrez, Kaltxango Musika Elkarteak ondoko konpromisoak hartzen ditu: bat, honako hitzarmenak irauten duen denboran Musika Eskolaren helburua mantentzea eta, jarduera uztekotan, Udalari asmo horren berri ematea, 12 hilabete lehenago gutxienez.*

***Zortzigarren.*** *Kaltxango Musika Elkarteak utzi zaion eraikina, egitura eta barruko altzariak baldintza egokietan mantendu eta erabiltzeko konpromisoa hartzen du.*

*Nolanahi ere, eta elkarte kudeatzaileari kalte ekonomikorik ez sortzeko, eraikina mantentzeko orduan, honako banaketa egiten da aldeen artean:*

*1. Ohiko mantentze-lanak, alegia, erabileraren beraren ondoriozkoak,*

entendiendo que para ello requieren de instalación propia.

- Que la soliciten para una actividad diferente a la de ensayos.
- Que la soliciten para realizar actividades o servicios ya ofertados por la Escuela de Música.
- Que no se ajusten a los horarios de apertura y cierre de la instalación.

Corresponde al Ayuntamiento de Ermua el otorgamiento de la condición de usuario/a, previa consulta a la Asociación Kaltxango Musical.

Corresponde a la Asociación Kaltxango Musical la determinación de las instalaciones disponibles y horarios de uso para este fin.

**Séptima**. En virtud de esta cesión, la Asociación se compromete a mantener la finalidad de la Escuela de Música durante el tiempo de duración del presente convenio. Si por motivos sobrevenidos la Asociación Kaltxango Musical tuviera que cesar la actividad, se compromete a notificarlo en un plazo no inferior a 12 meses.

**Octava**. La Asociación Kaltxango Musical se compromete a mantener el edificio cedido para la Escuela de Música en perfectas condiciones de uso, tanto de sus elementos estructurales como de mobiliario.

Esto no obstante, y a los efectos de evitar quebranto económico a la Asociación gestora, se establece el siguiente régimen de distribución de las labores de mantenimiento del edificio:

1º. El mantenimiento ordinario corresponderá a la Asociación Kaltxango

*Kaltxango Musika Elkarteak egin beharko ditu (iturgintza txikia, elektrizitatea: luminaria berriak jartzea, hartuneak konpontzea, uraren instalazio txikiak eta instalazio sanitarioak aztertzea, konponketa txikiak, girotze-instalazioa eta igogailua mantentzea eta aztertzea…);*

*Musika Eskolaren kontura joango dira eraikinaren barrualdeak pintatzearen gastuak.*

*2. Ohiz kanpokoko mantentze-lanak Udalak egingo ditu, alegia, 3.000 eurotik gorako makineria- eta instalazio-konponketak (girotze-instalazioa, igogailua…) teilatu-, zorroten- eta fatxada-konponketak (fatxada pintatzea, Udalak beharrezkotzat jotzen duenean).*

*3. Eraikinean makineria berria ipintzea (girotze-makineria eta igogailua) Udalari dagokio.*

***Bederatzigarren.** Kaltxango Musika Elkartearen kontura joango dira, halaber, zerbitzuaren funtzionamendurako behar diren hornidura eta komunikazio-zerbitzu ororen gastuak.*

***Hamargarren**. Ermuko Udalak Elkarteari bere jardunarekin zerikusia duten nahi beste txosten eta agiri aurkez ditzala eskatzeko eskubidea izango du.*

*Bestalde, urte bakoitzeko laugarren hiruhilekoan Elkarteak urteko memoria, aurreko ikasturteko balantzea eta hasi berri duen ikasturteko aurrekontuak aurkeztu beharko ditu.*

Musical, entendiendo por mantenimiento ordinario el correspondiente al generado por el uso (fontanería, electricidad: reposición de luminarias y reparación de tomas, revisión y pequeñas reparaciones en las instalaciones de agua y sanitarias, así como el mantenimiento y revisión de la climatización y ascensor);

Correrá por cuenta de la Escuela de Música los gastos generados por la pintura interior del edificio.

2º. El mantenimiento extraordinario correrá por cuenta del Ayuntamiento, comprendiendo ello las reparaciones de la maquinaria (climatizadora y ascensor) y de las instalaciones superiores a 3.000 euros, así como las reparaciones de cubierta, bajantes y fachada (la pintura de la msima cuando el Ayuntamiento la estime necesaria).

3º. La reposición de la maquinaria del edificio (climatizadora y ascensor) será por cuenta del Ayuntamiento.

**Novena**. Así mismo, correrá por cuenta de la Asociación Kaltxango Musical el pago de todos los suministros y servicios de comunicaciones necesarios para el funcionamiento del servicio.

**Décima**. El Ayuntamiento de Ermua se reserva la facultad de requerir a la Asociación para que presente cuantos documentos e informes le sean solicitados en relación con el ejercicio de su actividad.

De otra parte, durante el cuarto trimestre de cada año, la Asociación viene obligada a la presentación de la memoria anual de actividad y balance del curso anterior, así como los presupuestos del curso iniciado en ese periodo.

***Hamaikagarren.*** *Kaltxango Musika Elkartea Musika Eskolako jardunaren antolatzaile eta erantzule bakarra da, bai eta kantu eta musika eskolak emateko berezkoak dituen funtzioei aurre egiteko behar dituen langileen kontratazioarena ere. Musika Eskolaren jarduerak, beraz, ez du, inola ere Ermuko Udalarekin harreman laborala, profesionala edo zerbitzuzkoa dagoenik suposatuko.*

***Hamabigarren***. *Kaltxango Musika Elkarteak ondorengo aspektuetan Ermuko Udaleko Kultura Sailari musika sustatzen eta zabaltzen laguntzeko konpromisoa hartzen du:*

- *Udalerriko profesionalek eskatzen dutenean musika-programazio gaietan aholkuak emanez.*
- *Musika Eskolaren kudeaketa-eremuan eta bere ikasleen artean kultur programazioa zabaltzen lagunduz.*
- *Udalak berak edo Udalarekin lankidetzan ari diren herriko beste elkarte batzuk antolatutako kultur jardueretan parte hartuz.*
- *Udal Kultur Kontseilua kontsulta-organoak egiten dituen bileretara joanez eta horietan parte hartuz.*

***Hamahirugarrena***. *Ermuko Udalak Musika Eskola finantzatzen laguntzeko konpromisoa hartzen du. Horretarako urtero dirulaguntza bat emango du, zeina urtealdi*

**Decimoprimera**. La Asociación Kaltxango Musical es la entidad responsable exclusiva de la organización de la actividad de Escuela de Música, así como de la contratación del personal necesario para el desempeño de las funciones inherentes a la impartición de las clases de música y canto, cuya actividad no supondrá en ningún caso relación laboral, profesional o de servicio con el Ayuntamiento de Ermua.

**Decimosegunda**. La Asociación Kaltxango Musical se compromete a colaborar con el Departamento de Cultura del Ayuntamiento de Ermua en la promoción y difusión de la Música en los siguientes aspectos:

- Prestando su asesoramiento en materia de programación musical, cuando por parte de los/as profesionales del municipio le sea requerida.
- Participando en la difusión de la programación cultural en su ámbito de gestión y entre el alumnado de la Escuela de Música.
- Participando en las actividades culturales organizadas por el Ayuntamiento o por otras asociaciones locales que colaboran con el Ayuntamiento.
- Acudiendo y participando en el órgano consultivo “Consejo Municipal de Cultura”.

**Decimotercera**. El Ayuntamiento de Ermua, se compromete a colaborar en la financiación de la escuela de música a través de una subvención anual,

*bakoitzeko Udal Aurrekontuan konprometitua egongo den. Horretarako, urteko diru-laguntza eskaerarekin batera, aurreko ikasturteko balantzea eta dagokion ikasturteko aurrekontuaren aurrerapena aurkeztu beharko du elkarteak, Udalean aztertzeko.*

***Hamalaugarrena**. Dirulaguntzaren kopurua, ondorengo finantzazio-irizpideak aplikatzetik aterako da:*

- *Kopuru finko bat urtean Musika Eskolako zerbitzua emateagatik eta kudeatzeagatik, egungo espezialitate eta ezaugarri berberetan. Kopuru finko hori laurogeita bost mila euro (85.000 €) izango da.*

- *Kopuru aldakor bat, aurreko urteko irailean hasi den ikasturtean matrikulatutako ikasle bakoitzeko 100 €ko kopurua urtean aplikatzetik aterako dena.*

- *Aipatutako kopurua gehitu egingo da aurrekontu ekitaldi bakoitzean EAErako urteko KPI eguneratutakoaren ara*bera.

***Hamabosgarrena**: Aipatutako diru-laguntza bi zatitan ordainduko da:*:

- *Lehenengo zatia, diru-laguntzaren %60, uneko urtearen maiatzaren 31 baino lehen, Kaltxango Musika Elkarteak eskabidea aurkeztu ondoren. Eskaera horretan erakundeak onartu duen diru-sarrera zein gastuen urteko aurrekontua aurkeztu beharko du.*

comprometida en el Presupuesto Municipal de cada ejercicio, previo estudio del balance económico del curso anterior y el avance del presupuesto del curso que corresponda presentado por la Asociación a comienzos del ejercicio que corresponda, junto a la solicitud de subvención anual.

**Decimocuarta.** La cuantía de la subvención será el resultante de aplicar los siguientes criterios de financiación:

- Una cantidad fija anual por la prestación y la gestión del servicio de Escuela de Música, con las especialidades y características actuales. Esta cantidad asciende a ochenta y cinco mil euros (85.000 €).

- Una cantidad variable, que será el resultante de aplicar una cantidad de 100 €/año por cada alumno/a matriculado/a en el curso que haya comenzado en septiembre del año anterior.

- Dicha cantidad se verá incrementada en cada ejercicio presupuestario por la actualización del IPC anual para la CAV.

**Decimoquinta**. El pago de la referida subvención se producirá en dos partes:

- Una primera parte, correspondiente al 60%, se realizará antes del 31 de mayo del año en curso, previa presentación de la solicitud por parte de la Asociación Kaltxango Musical. En dicha solicitud se presentará el presupuesto anual, tanto de ingresos como de gastos, aprobado por la entidad.

- *Bigarren zatia, gainerako %40, uneko urtearen abenduaren 15a baino lehen ordainduko da, Kaltxango Musika Elkarteak diru-laguntzaren zenbatekoaren %100aren frogagiriak aurkeztu ondoren.*

***Hamaseigarrena**. Urteko diru-laguntzaren zuriketa ondorengo dokumentuak aurkeztuta egingo da:* :

- *Jardueren urteko memoria, Eskolan emandako espezialitateak eta Eskolak parte hartutako udal jarduerak zehaztuz eta elkarteak informatzea egoki deritzon beste edozein informazioren berri emanez.*
- *Kaltxango Musika Elkarteko zuzendaritza organoek onetsitako diru-sarrera eta gastuen azken balantzea.*
- *Eusko Jaurlaritzak Musika Eskolari emandako diru-laguntzaren jakinarazpenaren kopia.*
- *Aurreko urteko irailean hasiberri den ikasturtean matrikulatutako ikasle kopuruaren zinpeko adierazpena.*
- *Kaltxango Musika Elkarteak Musika Eskola Kudeatzeko hirugarrenekin hartutako obligazioen frogagirien kopia konpultsatua.*

- Una segunda parte, correspondiente al 40% restante, que se realizará antes del 15 de diciembre del año en curso, previa presentación por parte de la Asociación Kaltxango Musical de la justificación del 100% del importe total de la subvención.

**Decimosexta.** La justificación de la subvención anual consistirá en la presentación de la documentación siguiente:

- Memoria anual de actividades, con expresión detallada de las especialidades impartidas en la Escuela, la participación en actividades municipales y cualquier otra circunstancia de la que la Asociación considere oportuno informar.
- Balance final de ingresos y gastos aprobado por los órganos directivos de la Asociación Kaltxango Musical.
- Fotocopia del a notificación de la subvención obtenida por la Escuela de Música otorgada por el Gobierno Vasco.
- Declaración jurada del número de alumnos/as matriculados para el curso lectivo iniciado en el mes de septiembre del año anterior.
- Fotocopia compulsada de los documentos justificativos de las obligaciones adquiridas con terceros por la Asociación Kaltxango Musical para la gestión de la Escuela de

Música.

***Hamazazpigarrena.*** *Hitzarmen hau indarrean izango da hamar urtez eta 2015eko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra arte luzatuko da, beti ere, hitzarmena egiteko baldintzak bere horretan mantentzen badira.*

*Hitzarmenaren indarraldian bat-batean jarduera uztea edo Kaltxango Musika Elkartea desegitea gertatuko balitz, honako hitzarmen hau iraungitzat emango da automatikoki.*

***Hamazortzigarrena.*** *Hitzarmen hau alderdi bientzat egokitasunez betetzen dela bideratzeko, jarraipen batzorde bat eratuko da. Batzordean ordezkaritza ahalmena duten bi erakundeetako kideak bilduko dira, ados jarritako aldizkotasunez eta urtean behin gutxienez..*

***Hemeretzigarrena.*** *Aplikagarria den erregimen juridikoa: Hitzarmen honek administrazio izaera du eta horren arau berezietan oinarriturik zuzenduko da. Horren osagarri gisa, Herri Administrazioen Kontratuen Legeko printzipioak jarraituko dira.*

**Decimoséptima**. El tiempo de duración de la vigencia del presente convenio será de diez años, extendiéndose desde el 1 de enero de 2015 a 31 de diciembre de 2024, siempre que concurran las circunstancias que han motivado el presente convenio.

Si por causas sobrevenidas durante la vigencia del convenio, se produjera un cese de la actividad o la disolución de la Asociación Kaltxango Musical, el presente convenio se considerará automáticamente extinguido.

**Decimooctava**. Con objeto de facilitar el cumplimiento del convenio a satisfacción de las partes, se constituirá una Comisión de Seguimiento, en la que participarán miembros de ambas entidades con capacidad de representación suficiente, que se reunirá con regularidad pactada, al menos una vez al año.

**Decimonovena**. Régimen jurídico aplicable. El presente convenio tiene naturaleza administrativa, y se regirá por sus normas especiales y, con carácter supletorio, los principios de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.

***XEDAPEN IRAGANKORRA***

*Hitzarmen hau sinatu den data 2015eko urtealdiko udal aurrekontua onetsi eta gerokoa denez gero, Kaltxango Musika Elkarteari emango zaion diru-laguntza ehun eta hiru mila bostehun eta hogeita hamabost euroko (103.535) zenbateko finkoa izango da, 2014 urtean emandako kopuru berbera.*

**DISPOSICIÓN TRANSITORIA**

Como consecuencia de la fecha de firma del actual convenio, que tiene lugar con posterioridad a la aprobación del presupuesto municipal del ejercicio 2015, la subvención otorgada a la Asociación Kaltxango Musical ascenderá a la cantidad fija de ciento tres mil quinientos treinta y cinco euros (103.535 €), que es la misma cantidad que la obtenida durante el ejercicio 2014.

*Hori horrela, hamahirugarren klausula 2016ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean, 2016 urtealdi horretarako eta hitzarmenak irauten duen ondorengo urteetarako.*

*Alde biek ados daudela agerrarazteko, hitzarmenaren ale hau sinatu dute, 2015eko martxoarean XXX(e)(a)n.*

Por tanto, la cláusula Decimotercera entrará en vigor con fecha 1 de enero de 2016, para dicho ejercicio y los siguientes de vigencia del Convenio.

Y en prueba de conformidad, lo firman ambas partes en Ermua, a día xx, de marzo de 2015.

POR PARTE DEL AYUNTAMIENTO DE ERMUA/*ERMUKO UDALETIK*

El ALCALDE/*ALKATEA,*

Fdo./*Sin*.: Carlos Totorika Izagirre

POR PARTE DE LA ASOCIACIÓN KALTXANGO MUSICAL/*KALTXANGO MUSIKA ELKARTETIK*

DIRECTORA/*ZUZENDARIA,*

Fdo./*Sin*.: Silvia Izarra Cortazar